

Itsasoar guztioi, adetasunez,

2023ko azaroaren 25ean Itsasoko Ganbara Aretoan burututako Herri Batzarraren akta doakizue segidan:

1.- Alegiko dendaren proiektua: Estatutoen proposamena (Gorka Egiarekin)

Gorka Egiak Alegiako dendaren inguruan, azken hilabete hauetan kudeaketarako sortutako lantaldearekin egindako lanketaren berri eman zigun:

- Estatutuen definizioa: dendaren izena, kargu eta funtzioak, ...
- Dendak eskainiko dituen produktuak (herriko ekoizleak, Biziola, Topa) eta erosketak egiteko sistema
- Kontratazio aukera (lehenengo urtean behintzat)
- Finantzazio iturriak (Irizar, Udala,...) eta kuotak
- Erabiltzaileen konpromisoa: etxe bakoitzeko kide batek izena ematea da helburua

Ondoren, Miriam Otamendik azpiegituraren inguruko azalpenak eman zituen. Obra urte honen amaierarako bukatuta egotea aurreikusten da.

2.- Batzar Nagusietan eta Aldundian bilerak: Auzo Udalaren gaia eta Usansolori buruzko akordioak gurean izan dezakeen eragina

Azaroaren 28an, bilerak egingo dira Batzar Nagusietan. Auzo Udalaren gaia aztertuko da PSE, EHBildu eta EAJ-ko taldeetako ordezkariekin.

Ondoren, Foru Aldundian Irune Berasaluze Gobernantza Diputatuarekin Usansolori buruzko akordioak gurean izan dezakeen eragina aztertuko dute.

Bertaratuko direnak Gorka Sasieta, Joseba Telleria, Martin Iparragirre, Juan Landa abokatua eta honen lankide bat.


3.- Goiko Ostatuko proiektuaren egoera (Aldundiko teknikoekin izandako bilera)

Bi gai aipatu ziren: igogailuarena eta proiektuaren lizitazioa.

- Aldundiko teknikoekin izandako bileraren ondoren, Miriam Otamendik igogailua jartzeko hobetsitako lekua zein den adierazi zuen. Igogailua iturriaren atzealdean egongo litzateke kokatuta eta lehenengo solairura ranpa bidez irteteko aukera bermatuko luke, eraikinaren ezkerreko aldetik. Lehenengo solairutik ganbarara igotzeko eskailera bat jarriko da barruan.



Goiko ostatua eta igogailuaren kokapena alboan



Ganbararako igoera




Lehen solairuko planoa eta igogailuaren kokapena

- Goiko Ostatuko proiektuaren erredakzioa lizitazio bidez dago esleitu beharra. Hortaz eskaintza publikoa egingo da, eta aurreproiektua egin duten Miriam eta Estik aukera izango dute lizitazioan parte hartzeko. Udalak beste teknikari bat jarriko du aurkezten direnen artean balorazioa egin dezan.

4.- Alegiako Elkarteko 2. solairurako diru-laguntza eskaera (Erein)

Alegiko elkarteko goiko solairua irigarri eta erabilgarri egiteko proiektu bat aurkeztu zen EREIN dirulaguntza deialdira, eta honen berri eman zen (ikus ondoko planoa, ezkerrean igogailua duela)



5.- Baserri bide konponketak, konpostagailuak, kolunbarioa

- **Bide konponketak:** Gainera enpresa ari da bideak konpontzen. Kaminoetxeberriko bideko bi tramu berritu dira. Neurri batean baserriko obra egitean hondatu zelako, konponketaren zati bat etxejabeek ordaintzea adostu da.
Miraballestik Goikoetxera doan bidean, luizia eroritako lekuan, egingo da hurrengo konponketa, eguraldiak ahalbideratzen duenean.
Kizkitzara igotzeko ditugun Arrobiako aldapa eta antenakoa ere erreparatu dira. Lokazti handia sortzen den guneak ikusiko dira, konponbide egokiena topatu ahal izateko.
- **Konpostagailuak:** Diru-laguntza bat bitarteko, konpostagailu berriak jarri dira Itsason (3) eta Alegian (2). Orain artekoak baino hermetikoagoak dira eta eulien arazoa hobeto sahiestuko da. Konposta lehen bezala egingo da, hala ere, argibideak jarriko dira karteletan.
- **Kolunbarioa:** Aspaldiko eskaera honi erantzunez, kolunbarioa jarriko da hilerrian, ezkerreko kapilla eta panteoien tartean dagoen paretaren kontra. Oraindik erabaki gabe dago zein eredu jarriko den baina irudian ikusten denaren orde, zabaletara jartzeko modukorik balego, egokiagoa ikusten da.



kolunbario erduetako bat

6.- Ostatu kontratu luzapena

2023ko urriaren 19an Itsasoko Ostatuaren kudeaketarako kontratuaren luzapena sinatu da 2025eko uztailaren 30era arte. Ordutegian aldaketa batzu hitzartu dira epe berri honetarako eta hau izango da ordutegi berria:

- **Neguko ordutegia** (urriko ordu aldaketatik martxoko ordu aldaketara)
Astelehena/osteguna/igandea 10:00 – 19:00
Ostirala/larunbata: 10:00 – Afari Zerbitzua
Deskantsu egunak: Astearte eta asteazkenak
- **Udako ordutegia** (martxoko ordu aldaketatik urriko ordu aldaketera)
Astelehena/astearte/osteguna/igandea 10:00 – 21:00
Ostirala/larunbata: 10:00 – Afari Zerbitzua
Deskantsu eguna: Asteazkena
- **Oharra:** Ordutegi honen salbuespena izango dira jai egunak eta jai hauen bezperak. Horrelakoetan, jai bezpera eta jaiegunetan Ostatua zabalduko da, beste lanegun batzuegatik aldatuz deskantsu egunak, jai bezperetako ordutegia afari zerbitzura arte izanik.

Informazio honekin batera, jakinarazpena zabalduko da, eguneko menuen prezioarekin, afari eskaintzarekin, etab.

7.-Agenda kulturala

Honako kultur agenda hau aurreikusten da abendurako:

- Abenduaren 2an, AUZOLAN DIGITALA plazako karpan: girotzea, grabaketak binaka eta denon arteko merienda-afaria
- Abenduaren 16an, GABONETAKO APAINKETA
- Abenduaren 23an, GEREZIONDOEN LANDAKETA eta GABON KANTEN ENTSEGUA
- Abenduaren 24ean, GABON KANTUAN HERRIAN ZEHAR
- Abenduaren 30an, HERRIKO HAINBAT ITURRI, ASKA, ALBERKA, KAINU ZULO ETA PUTZU EZAGUTZEKO IBILBIDEA

8.- Azaroaren 25: Emakumeen indarkeriaren aurkako manifestu irakurketa

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezina eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskek eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerak ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonek eta emakumeek harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratuak zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larrienek eraso sexualetara eta fisikoetara eraman dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginguak alde batera utzita.

9.- Norberak lekarkeena

Adeitasunez,

Itsasoko Batzordea

Itsason, 2023ko azaroaren 29a